




Pil-pilean

TURKIOI

Soraluzeko hilabetekaria
2023ko maiatza - 398 alea



HAUTAGAIK
AUKERATZEKO ORDUA



PIL-PILEAN 398

2023ko maiatza

Azaleko argazkiaren egilea:
Fernan Oregi.

Aurkibidea

- 4 **Elkarrizketa** Amaia Osoro
- 6 **Begira** Kamera beti aldean
- 8 **Zer berri** Aktualitateko albisteak
- 18 **Argazki bidez** Pintura erakusketa
- 22 **Erreportajea** Udalerako hautagaien proposamenak
- 30 **Kirola** Errugbi Eguna, Eskola Kirolaren azken jaia, Denis Soriano arrantzalea eta Jokin Muñoz korrikalaria
- 32 **Kultura** Euskal jaiak
- 36 **Sakonean** Errotaz betetako herria
- 38 **Zerbitzuak** Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak...

IRITZIA

- 3 **Neuretik** Maider Gabilondo
Ariznabarreta Munduko haurren osasuna alerta gorrian
- 20 **Gutunak** Modestaren familia
Eskerrik asko zaintzaile guztiei
Mikel Alvarez Forcada *Lurraren defentsan Gasteizen elkartuko gara*
- 20 **Komiki tira**
- 21 **Hausnarketa** Hauteskundeak
- 21 **Puntua** Iñaki Amutegi *Nora goaz?*



Pil-pilean herri komunikabidea

TOKIKOM

Argitaratzailea
Pil-pilean Euskaltzaleen Topagunea
Errabal kalea 15-1, PK 27
20590 Soraluze

Erredakzioa
Ubane Madera
ubane@pilpilean.eus
Egoitz Unamuno
egoitz@pilpilean.eus
605 706 086

Publizitatea
publizitatea@pilpilean.eus

Zuzentzailea
Miren Gallastegi

Diseinua
Goiena
Oier Larreategi (moldaketak)

Maketazioa
Oier Larreategi

Inprimategia:
Gertu Koop.

Banaketa:
Pil-pilean Ekoizpena

Lege Gordailua:
SS-537-2000

Tirada: 2.100 ale

Babesleak



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZEKO
UDALA**

Munduko haurren osasuna alerta gorrian



MAIDER GABILONDO ARIZNABARRETA

UNICEFen azken txostenaren arabera, pandemiaren ondorioz, haurren txertaketaren estaldurak eta txertaketarekiko konfiantzak behera egin dute mundu osoan.

Pandemiak haurrentzako txertoak eskuratzeko zailtasunak eragin ditu mundu osoan. 2021aren amaieran, India eta Nigeria ziren txerto bakar bat ere jaso ez zuten haurren kopururik handienak zituzten herrialdeak. Datu oso kezagarria kontuan izanda Nigeriak munduko haurren hilkortasun tasarik handiena duela -jaiotzen diren 1.000 haurretatik 111 hiltzen dira bost urte bete aurretik-, eta adibidez, Indian, 2021ean, 709.000 haur hil zirela (<5 urte).

Baina, txertoen eskuragarritasunaz gain, bada beste fenomeno kezagarri bat: azken urteetan haurren txertoen garrantziaz gizarteak duen pertzepzioa gutxitu egin da herrialde gehienetan. Immunizazioa da osasun publikoko esku-hartze eraginkorrenetako bat, eta 3,5 - 5 milioi heriotza prebenitzen ditu urtero, besteak beste, difteria, tetanosa, kukurruku-eztul edo elgorriarengandik.

Txertoen aurreko errezeloa eta horrek sortzen duen desinformazioa dira populazio batzuek txertatze-tasa eskasak izatearen arrazoi nagusiak. Baina datuek argi eta garbi erakutsi dute txertoak eraginkorrak direla eta txertoek bizitzak salbatzen dituztela. Haur bati txertorik jartzen ez diogunean, haren bizitza eta osasuna arriskuan jartzen ditugu.

Arrazoi askorengatik, luzea litzateke denak azaltzea, baina hausnarketa batekin bukatu nahi nuke. COVID19-aren pandemian ikusi ahal izan dugu, herrialde aberatsenetan ere, osasun sistemek dituzten gabeziak izurriteei aurre egiteko. Ospitaleek ez dute baliabide nahikorik, ez dago behar adina ohe, ez osasun-langile, botika edo arnasmailu. Zer esanik ez herrialde txiroetan.

Hurrengo urteetan estaldura tasek gora egiten ez badute, hurrengo heriotza boladak hemen protagonista izan ditzake haurrak, elgorria, difteria edo gaur egun txerto batekin prebeni daitezkeen beste gaixotasun batzuekin.

HAUR BATI TXERTORIK JARTZEN EZ DIOGUNEAN, HAREN BIZITZA ETA OSASUNA ARRISKUAN JARTZEN DITUGU

“Askotariko errealitateak ikustea aberastasun handia da”

TESTUA UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIA: FERNAN OREGI

Amaia Osoro (Eibar, 1976) Plaentxi Eskolako zuzendaria da 2021-22 ikasturtetik. 10 ikasturte daramatza Soraluzeko eskolan. Edurne Ugalderekin eta Iraia Teranekin batera osatzen du eskolako zuzendaritza taldea.

Zein da ikastetxearen egoera?

Izugarrizko aldaketa izan du azken hamar urteotan. Orokorrean, oso egoera onean dago. Duela hiru ikasturteko pandemiak digitalki hobekuntza handia ekarri zigun, lan egiteko eran zein bestela. Irakasleak eta ikasleak digitalki formatuagoak gaude. Gainerakoan, Udalaren, gurasoen eta eskolaren arteko lanketa egin eta urte batzuen ostean, lortu da igogailuaren obra onartzea. Eskerrak eman nahi dizkiegu denei. Erren gabiltza, berriz, matrikulazioan. Izugarri jaitsi da. 300 ikasle ditugu. Matrikularen tendentzia beheranzkoa da jaiotza tasa behera doalako.

Adibidez, aurtun, 2 urtekoetan gela bakarria izan da eta datorren ikasturtean ere hala izango da.

Proiektukako lan sistema eta matematikak ikasteko metodo berritzaileak dituzue. Zein fruitu ematen ari dira?

Duela 10 urte hasi ginen metodologia aldatzen. Hainbat metodologia arrakastatsu finkatu ditugu konpetentzia zientifikoa garatzeko: danio arrainak zaindu, txitak hazi, patioko baratza, denda irudikatu, robotika, ikasturte honetan antzerkigintza ... Matematikako metodologia, berriz, duela 8 ikasturte hasi ginen aldatzen eta azken froga diagnostikokoan emaitza hobek izan genituen. Pandemiaren eten ziren matematikako gurasoentzako tailerrei dagokienez, datorren ikasturtean berreskuratu nahi ditugu. Bestalde, oso kezkatuta gaude pantailen gehiegizko erabilerarekin. Horri aurre egiteko, LH5-6ko ikasleek formakuntza jaso dute eta gurasoak ere gonbidatu ditugu formakuntza bera jasotzera.

Hezkuntza-lege berriak zertan eragin diezaioke Plaentxi herri ikastetxeari?

Aurreproiektua argitaratu berri dute eta aztertzen dihardugu. Hausnarketa egingo dugu. Dena den,

herrian ikastetxe bakarria izanda, legeak dituen gaietako batzuk ez digute eragiten.

Zenbat irakasle daude ikastetxean?

Klaustroan 40 bat irakasle gara. Horietatik 7 soraluzetararak. Hainbat irakaslek finkapena lortu zuten eta bertan jarraitu dutenez, horrek ekarri du irakaslegoa hainbeste ez aldatzea. Bestalde, ikasturtero ditugu hainbat irakasle aldatzen direnak. Horrek ikastetxea behartzen du irakasleagoaren etengabeko formakuntza izatera, gure metodologiara egokitzeko.

Ikasleen profilari dagokionez, askoz gehiago dira etxetik euskara ez den beste hizkuntza bat dakartenak. Zein baliabide dituzue hori kudeatzeko?

Pertsona bat daukagu, HIPI figura (Hizkuntza Indartze Programakoa). EAE kanpotik datozen LHko ikasleei hizkuntza errefortzua eskaintzen die. Bestalde, herriko beste erakunde batzuekin elkarlanean, beste hainbat jardueratan parte hartzen dute ikasleek: Bertakotze, ludoteka, eskola-kirola... Horrekin batera, urteotan, matrikula biziaren (ikasturtea hasita matrikulatzen diren ikasleak) kopurua handia da. Horri aurre egiteko, harrera plana daukagu ikasleentzat zein familientzat. Familia etorri-berriek positiboki baloratzen dute. Eta matrikula-biziari aurre egiteko HIPI gehiago ere onartu dizkigute, baina oraindik ez dira ailegatu.

Kultura eta erlijio aniztasunari dagokionez, zela erantzuten dio ikastetxeak horri?

Hezkuntza Sailak bidaltzen dituen giza baliabideak ditugu. Gaur egun, erlijio katolikoko irakaslea dago. Iaz, berriz, nabarmen handitu zen erlijio islamiarra ikasteko eskaera, baina ez dute baliabiderik bidali. Kultura-aniztasunari dagokionez, berriz, kulturalki hainbat arraza, kultura eta hizkuntza ezagutzea, errealitate desberdinak ikustea, aberastasun handia da umeentzako, aukera ematen dielako bestearen lekuan jartzeko. Horrek akaso irakaskuntzarako eta, adibidez, euskara irakasteko zailtasuna dakar, baina gizartea horrelakoa da eta euskarak bizirautea nahi badugu gizarteko errealitate horrekin lan egin beharra daukagu.



Kamera beti aldean

ARGAZKIA: IÑAKI OREGI

TESTUA: UBANE MADERA ZANGITU

Vértigo du izenburua. Gorla inguruan, tentsio altuko dorreak handiagoengatik aldatzen zebiltzala aterata zien argazkia Iñaki Oregik iazko uztailean. Lan-gaixotasuna tarteko, Mutualiara joatea tokatu zitzaion eta han ikusi zuen argazki lehiaketaren berri. "Nik badaukat horrako argazki aproposa", pentsatu, *Vértigo* aurkeztu eta lehen saria eskuratu du soraluzetarrak. Kontatu duenez, bizikletan edo mendira doanean beti kamerarekin doan horietakoa da. Animaliei, batik bat, txoriei, ateratzen dizkie erretratuak. Badu Osintxun martin arrantzalea aterata eta orain okil bikotea lokalizatuta dauka eta kumeekin batera erretratatu nahi ditu. 20 bat urte daramatza argazkiak ateratzen eta 100.000tik gora baditu aterata. Adibidez, Txokoko lorea ere berea da.







Herriko Antzokia Kooperatibako bazkidez beteta, eguaztenean.

Co-Aliment taldeko kide

Soraluze Koopeartiba Elkarte Co-Aliment (HD Covalco) taldeko kide izango da; kooperatibako bazkideek aho batez onartu zuten proposamena eguaztenean egindako ezohiko batzarrean

Antzokian egin zuten batzarra, aretoa bazkidez beteta zela, langileak tarteko. Soraluze Kooperatiba Elkarteko Jose Luis Sanchez presidentek eta Ainhoa Ibarzabal idazkariak saltokiaren egoera ekonomiko txarra gogora ekarri ondoren, batzordearen proposamena aurkeztu zuten: Co-Aliment (HD Covalco) taldeko kide izatea. Trukean, Co-Alimentek 30.000-40.000 euroko inbertsioa egingo du Kooperatibaren itxura berritzeko eta Kooperatibak, berriz, Co-Aliment markako produktuak jarriko ditu saltokiko lehen lerroan.

"Oso prezio kompetitiboak"

Sanchezek eta Ibarzabalek esplikatu zutenenez, urteak

daramatzate Co-Alimentekin lanean, "oso prezio kompetitiboak" dituzte, horrek "herrian dagoen egoerari erantzuteaz" aparte, "Eroskirekin lehiatzeko aukera" emango lieke eta aztertutakoen artean, aukerarik onena da berau. Are gehiago, jakinarazi zuten hori zela "azken aukera" eta berau onartu ezean, udan itxi egin beharko zutela Kooperatiba.

Bazkideen galderari erantzunez, proposamenaren xehetasunak azaldu zituzten. Adibidez, Co-Alimentekin kontratua bost urterako izango dela; hitzarmen horrek ez duela eraginik izango saltokiaren gestioan, horrekin Kooperatiba arduratuko dela, orain arte moduan; kontratu horrek ez duela eragingo, ezta

ere, Kooperatibako bazkideengan eta Kooperatiba ez dela frankizia bat izango.

Komisioak salmentako

Jakinarazi zuten, baita ere, Co-Alimenten inbertsioarekin, kartelak aldatu, argiteria berritu eta besteak beste, hari musikala jarriko dutela, bozgorailuetatik saltokiaren eskaintzak egiteko. Kooperatiban orain arteko produktuak salduko dituztela, baina Co-Aliment markakoak lehen lerroan ipiniko dituztela eta lehentasuna haiek izango dutela azaldu zuten, Kooperatibak komisioa eskuratuko baitu salmenta bakoitzeko.

Kooperatibako lantaldeari dagokionez, bi erretiro tarteko, langile bat gutxiagorekin egingo diote aurre ibilbide berriari.

Bestalde, eguerdian zein iluntzean ordutegiak luzatzeko aukera mahai-gaineratu zuten hainbat herritarrek. Horri erantzunez, Ibarzabalek adierazi zuten, besteak beste, ordutegiak luzatu ahal izateko, langile gehiago beharko lituzketela eta orain Kooperatiban ez dagoela horretarako dirurik. Dena den, gaineratu zuten proposamenak jasota geratzen direla eta kontuan hartuko dituztela, "batik bat, kooperatibak jendea kontratatatu ahal izateko diru gehiago duenean".

Azkenean, Co-Alimenten proposamena aho batez onartu zen eta txalo artean bukatu zuten batzarra.

**CO-ALIMENTEN
KONTRATUA BOST
URTERAKO IZANGO DA
ETA EZ DU ERAGINGO
SALTOKIAREN GESTIOAN**



Debabarreneko Arraun Gunea sortzeko proposamenen grafikoa. Gure Deba Ibaia taldea.

Debabarreneko Arraun Gunea

Gure Deba Ibaia taldeak Debabarreneko Arraun Gunea sortzea proposatu du.

Joan zen zapatu eguerdian, bost arraunlari hiru piraguatan ibili ziren ibaian gora eta behera, momentuan inguruan ziren herritarren arreta erakarriz. Arraunlari haietako bat plazentziatarra da eta bere esanetan, "jendeari pentsarazi

egin" nahi izan zioten piraguekin ibaira sartuz, "zerbait piztu". Bada, biharamunean, Gure Deba Ibaia taldeak, ikusentzunezko bat kaleratu zuen alderdiei proposatuz Debabarreneko Arraun Gunea

sortzea Soraluzen, adieraziz piraguak "urte osoan" behar luketela. Presak mantentzearen alde egiten duen taldeak, Plaza Zaharreko aroztegi zaharraren eraikina baliatzea proposatu du, bertan Debabarreneko Arraun Gunea ezartzeko.

Erreferenduma eskatu dute

Bestalde, egun batzuk lehenago, Gure Deba Ibaia (GDI) taldeak beriz eskatu dio Udalari erreferenduma deitu dezala Merlin proiektuak presak eraisteko aurkeztu zuen proposamenaren inguruan erabakitzeko. Urte hasieran, 634 herritarren sinadura aurkeztu zituzten erreferenduma eskatuz.

Sare sozialak baliatuta, erreferendumaren aldeko zortzi bideo partekatu ditu GDI taldeak herritarren artean; haietan, besteak beste, gogorarazi dute Udalean ordezkaritza duten hiru alderdiek ezezkoa eman diotela erreferenduma egiteko eskaerari eta horrekin batera, nabarmendu dute, gaiari buruzko azken erabakia Soraluzeko Udalaren esku dagoela.

Energia Berriztagarrien LPS-ari alegazioak aurkezteko aukera aztergai

Maiatza hasieran Eusko Jaurlaritzak aurkeztu zuen Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala (LPS) aztertzen ari da Karakate Bizirik plataforma.

Berez, Eusko Jaurlaritzak hasiera batean onartutako Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialean, Karakateko mendilerroa ez da

azaltzen zentral eolikoak eraikitzeko aukeratutako guneen artean. Baina era berean, Jaurlaritzaren Lurralde Plan Sektorialak bakarrik aintzat hartzen ditu zerrenda horretan 30 Megavatiotik gorako azpiegiturak eta Karakatekoa 9,6koa da. Beraz, oraindik ez da argitu mendigainerako eskatutako

baimenarekin zer gertatuko den.

Green Capitalen proiektua zertan

Hori horrela, Karakate Bizirik plataforma abokatuarekin harremanetan dabil, besteak beste, LPSari alegazioak aurkezteko zein aukera dagoen aztertzeko eta noski, Green Capital enpresak (Capital Energy) Karakaten zentral eolikoak eraikitzeko eskatutako baimenarekin zer gertatuko den argitzeko.



Ahalduntze eskola diseinatzeko lehen bilera Tolarekuan. SORALUZeko UDALA

Ahalduntze eskola diseinatzen

Emakumeen ahalduntze eskola diseinatzeko lehen bilera egin da eta bigarren bat egingo da ekainaren 20an.

Maiatzaren 13an, Soralezeko Udaleko Berdintasun batzordeak deituta, adin eta jatorri ezberdinetako hainbat emakume batu ziren Tolarekuan, "ahalduntze edo jabetze eskola izango denaren

oinarriak" zehazteko helburuz. Hainbat gairen inguruan berba egin zuten baina nagusiki landu zuten: "eskolari zein helburu ezarri, nola egin, nork egin, epe laburrean zerekin hasi...".

Koordinazio mahaia, iragarki taula...

Yoana Azpitarte berdintasun teknikariaren esanetan, bileran, hainbat erabaki hartu zituzten, hala nola: "Jabetze eskola garatzen duen koordinazio mahaia sortzea eta berau ahalik eta pluralena izan dadin, pertsona eta talde gehiago gonbidatuz; beste bilera bat konbokatzea, ekainaren 20an, asteartean, 18:00etan, Kalebarreneko espazio berrian, partaideei umeak zaintzeko zerbitzua eskainiz bilerara etortzeko erraztasun gehiago izan dezaten; iragarki-taula bat ezartzea kaleko leku ikusgarri batean, bertan emakumeek dituzten beharrak eta eskaintzak erakutsi ahal izan ditzaten (ordainpeko zerbitzuak); eta, iraillean prozesu partehartzailerik sortuko dena inauguratzea (izena erabakitzeko dago)".

Horrekin batera, bileran parte hartu zuten emakumeek hainbat zerbitzuren premia mahaigaineratu zuten, bereziki: aholkularitza psikologikoa, juridikoa eta sexualitateari dagokiona.

Matxismoa eta LGBTIfobia

Eguaztenean, LGBTIfobiaren aurkako nazioarteko eguna zela-eta, elkarretaratzera egin zuten Plaza Berrian aniztasunaren kontra dauden jarrera horiek gaitzesteko. Halaber, bezperan, Orion izandako erailketa matxista tarteko, hura ere gaitzetsi zuten protestan parte hartu zuten 80 bat herritarrek.



ELIZPE HORTZ KLINIKA

Zure gertuko hortz klinika, punta-punta teknologekin lan egiten dugu. Cad Cam sistema berritzaia erabiltzen dugu.

Elizburu, 3 behea
SORALUZE
 Tel: 943 75 25 67
 Btg: 943 42 78 19
 e-mail: elizpeh@gmail.com

Ordategia:
 Astelehenerdik ostiralera
 9:00 - 13:00 eta 16:00 - 20:00

IZZAGUIRRE
 Igeltseritza



Erakitin berriak • Kalitateko emaitza
 Erreformak • Era gutxietako igeltseritza

50 urteko esperientzia • 610 638 913

MENDIZABAL
 okindegia
 Ogi - Prentsa - Gosariak



Astelehenerdik ostiralera:
 08:00 - 13:00
 17:00 - 20:00
 Larunbatak eta igandeak
 08:30 - 13:15

Kalebarren 10
 Tel.: 943 75 13 99

Txoko

Eguneko menua, plater konbinatuak, hamburgerak, ogitariekak, natiak, pizza, gaztaria...

Enkarguak agintzen dira
 Tel. 943 75 17 88

MABEL
 INEOPAINDEGIA

Laser depilazioa
 Keratina tratamendua
 Solariuma

Erratel 1
 Tel.: 943 75 14 89

Soraluzeko Kooperatiba Elkarte
 1910etik ezabak

Arraindegia, janaria, erropak, etako tresnak, etxera eramaitako zerbitzua

Kalebarren 4
 Tel.: 943 75 13 45

Astelehenerdik ostiralera:
 09:30 - 12:30 eta 15:00 - 19:45
 Larunbatak: 09:30 - 13:00

KM design
 Kira - Muntatzeak

943 76 99 85

kiramuntatze@yahoo.es
 www.kmdesign.es

Pol. Amalgara 5
 BERGARA

Disenatu eta Fabrikazio lanak
 Sukaldeak
 Horma-oinarriak
 Logelak
 Zoruak
 Altzak...

Arotzeria lanak oro har
 Instalazioak

BOLIT
 TABERNA



Pirxoak, arinak, konbinatuak
 Gazte-giroko festa

MGS Seguros

Veronica Gallarraga
 Gertuko eta segurua



Astelehenerdik ostiralera:
 10:00 - 13:30 eta 17:00 - 19:30

Santa Ana 13
 Tel: 945 744 055

ION MURGIZU BAKAIKOA
 PINTOREA

amuntak dekoraziorako industriala

Tel. 943 75 13 24 Mug. 652 77 70 30

Carpinteria MANU
 Aroztegia

Atzak
 Bentariek
 Pateleak
 Sukaldeak
 Taloak

Manuel C.fuentes
 Estazioa 8. barrena - Mug. 636 05 81 25

Altmar
 INEOPAINDEGIA

Ineopaindegia
 Estetika
 Solariuma



Gabildeg 4, Aheua
 Tel.: 943 75 13 11 - 682 51 34 94

Soraluze Motor

Mug. 676 556 817 (Asier)
 Tel. 943 75 21 38

Mendiola ind. 15
 Soraluze



HNOS. BENITO
ANZURK
 MUEBLES-ALTZARIAK

Sukaldeak, logelak, egongelak,
 neurrira egindako altzariak...

Santa Ana, 26 - Tel.: 943 75 20 47

Bidelagun euskaltzaletasunean


SOMABE Supporting your projects

aras

ALBISUA S.L.

laibi ELECTRICIDAD

Jatorriaren bilakaera Soraluzen 2002-2021



Estatutik kanpoko nazionalitateak jendetsuenen bilakaera Soraluzen. SARETZEN

Gero eta dibertsoagoa

Hogei urtean gora egin du etorkinen kopuruak Soraluzen. PIL-PILEANek herriko eta bailarako inmigrazioaren jatorria eta sexua aztertu ditu Saretzen egitasmoaren baitan.

2002an 4.158 biztanle bizi ziren Soraluzen, eta haietatik jatorri ez-espainiarra –ezta hego euskal herritarra ere– zutenak 133 ziren, INE Espainiako Estatistika Institutuak emandako datuen arabera; biztanleriaren %3,2. Ostera, egun egoera bestelakoa da: biztanleria orokorraren datuak ez du aldaketa handirik izan, baina bai, ordea, etorkinenak. 2021ean, Soraluzek 3.842 biztanle zituen eta haietatik 554 ziren atzeritarrak; biztanle guztien %14,42.

Debabarreneko herrien artean, Soraluze zen etorkin tasa altuena zuen herria (ikus datuak eskumaldeko orrialdeko grafikoan) eta Gipuzkoan,

berri, 8.a, Ordizia (%18,77), Leaburu, Ikaztegieta, Irun, Zaldibia, Itsasondo eta Beasainen (%14,55) atzetik.

Gehienak afrikarrak eta amerikarrak

Soraluzeko etorkinen jatorriari kontinenteka erreparatuz gero, Soraluzen afrikarrak dira gehiengoak; 2021ean, 289 pertsona, eta horien artetik, gehienak marokorrek dira: 248. Gainerakoak algeriarrak (4), nigeriarrak (6), senegaldarrak (1), mauritaniarrak (1) eta beste herrialde batzuetakoak. Generoari dagokionez, afrikarren artean gizonezkoak gailentzen dira (%61).

Bigarren multzo nagusia amerikarrek osatzen dute; 2021ean, 182 pertsona. Amerikarren artean, komunitaterik jendetsuena nikaraguarrena baldin bada ere (29), Hego eta Erdialdeko Amerikako herrialde askotako pertsonak daude, esaterako: Ekuador (24), Venezuela (17), Bolivia (15), Dominikar Errepublika (14), Brasil (13), Peru (11), Argentina (9), Kolonbia (9), Kuba (7), Paraguai (2) eta Txile (2). Generoari dagokionez, emakumezkoak dira nagusi (%63).

Askoz gutxiago dira europar jatorriko pertsonak: 44. Horien artean, gehienak portugaldarrak dira (16), ondoren datoz errumaniarrak (14) eta atzetik alemaniarrek (6), frantziarrak (3), ukrainiarrak (2) eta italiarra (1). Generoari dagokionez, gizonezkoak dira gehiago (%66).

Asiar jatorrikoak dira gutxiengoak: 39. Horien artean, ia denak pakistandarrak dira (28) baina badira bangladeshtarrak ere (3), txinatarrak (1) eta beste. Generoari dagokionez, asiarren kasuan gehixeago dira gizonezkoak (%56).

Azkenik, ozeaniar jatorriko biztanlerik ez dago.

26 nazionalitateak gora

Bateko eta besteko, 2021ean, guztira, 26 nazionalitate baino gehiagoko pertsonak bizi ziren Soraluzen.

2002AN, %3,2 ZIREN JATORRIZ ESPAINIAR ESTATUTIK KANPOKOAK ZIRENAK, 2021EAN, %14,42.

Testigantzak



HIBA NEJDAOUI

Marokorra naiz. lazko uztailean etorri nintzen Soraluzeera, aitarengana. Gogorrena familia han utzi beharra da eta onena hemen lanerako aukera dagoela.



AZAD CHOWDHURY

Bangladeshtarra naiz eta 2014an etorri nintzen Soraluzeera. Paperak lortu bitarteko urteak izan ziren gogorrenak.




REBECA ROMERO

Ekudorkoa naiz. 29 urterekin etorri nintzen anaiarengana eta urteotan adinekoak zainduz atara dut bizimodua.

Hamar herritarretatik bat etorkina da bailaran

Atzeritar jatorriko biztanleria herriz herri 2021

%6 %15



Nazionalitate nagusiak herrika 2021

Mutriku: Senegal
Deba: Bolivia
Mendaro: Maroko
Elgoibar: Maroko
Soraluze: Maroko
Eibar: Maroko
Ermua: Maroko
Mallabia: Errumania

Atzeritar jatorriko biztanleriaren portzentaia herriz herri. ITURRIA: INE.

Hogei urteotan gora egin du etorkinen kopuruak Debabarrenean. 2002an 72.390 herritar bizi ziren bailaran, eta haietatik jatorri ez-espainiarra –ezta hego euskal herritarra– zutenak 1.773 ziren, INEk emandako datuen arabera; biztanleriaren %2,45. Alabaina, egoera bestelakoa da egun: populazio orokorraren datuak ez du aldaketa esanguratsurik izan, baina bai, ostera, etorkinenak. 2021ean, 72.054 biztanle zeuden Debabarrenean eta haietatik 8.248 ziren atzeritarrak; biztanle gutzien %11,45.

Gehienak latinoamerikarrak

Kontinenteetako jatorriari erreparatu gero, gehienbat, amerikarrak dira bailarara etorri direnak. 2002an 685 ziren handik iritsitako pertsonak, eta 2021ean, 3.686. Gehienak latinoamerikarrak. Amerikarren ostean, batez ere, afrikarrak dira gehien etorri direnak. 2002an 570 herritar ziren eta 2021ean, 3.047 dira. Askoz gutxiago dira, europar eta asiarrak jatorrikoak.

Hego Euskal Herriko egoera

Hego Euskal Herriari dagokionez, 2002an etorkinak %4,17 baziren, 2021ean, biztanleria osoaren %12,73 dira. Bada, datu horiek gogoan, Xabier Aierdi Soziologian doktoreak eta immigrazioan adituak ondorioztatu duenez, datuok erakusten dute "errealitate berri baten aurrean" gaudela, eta, gainera, "egiturazkoa" izango dela. "Norbaitek uste badu joan-etorriko pertsonak direla, ez da: datozenak bertan geldituko dira, hemen garatuko dute euren bizitza". Nabarmendu du "gizarte berri bat" sortuko dela, askotariko jatorrietako herritarrez osatua eta, beraz, erronkak "nolabaiteko hiritartasun praktikoa" bultzatu behar duela. "Bizitzeko baliagarria den gizartea sortu behar dugu, denentzako aukera berberekin".



Euskal txirrindulariek eta Gure Eskuk Oreretan egindako agerraldia. GURE ESKU

Inoizko ikurrinik handiena Tourrean

Gure Eskuk inoizko ikurrinik handiena egin nahi du, Tourrean Euskal Herria nazioartean proiektatzeko helburuz. Diru-bilketa abiatu du.

Uztailean, Tourra Euskal Herrira datorrela-eta, txirrindulari lasterketa horrek nazioartean duen oihartzuna baliatu nahi du Gure Esku mugimenduak Euskal Herria nazioarte mailan proiektatzeko, "hau da, argi

esateko, Europako txoko honetan 7 lurraldez osatutako herri bat dagoela, nortasun propioa duena, Europako hizkuntza zaharrenarekin bizi dena, bere burua gobernatu nahi duena, kirolzalea dena eta

hori dena harrotasunez bizi duena", *Euskal Herritik Mundura* lelopean.

Horretarako, Gure Eskuk "inoiz egin den ikurrinik handiena" egin nahi du eta helburu hori lortzeko, diru-bilketa kanpaina jarri du martxan, nazio mailan zein herriz herri. Hala, Soraluzeko Gure Eskuk, mahaiak jarriko ditu kalean, dirua batu eta materiala saltzeko, ondorengo egunetan: maiatzaren 27an (11:30-14:00); ekainaren 2an (18:00-20:30); ekainaren 8an (10:00-12:30) eta ekainaren 9an (18:00-20:30). Gainera, Soraluzeko taldeak jakinarazi du, mahaietara hurbildu eta laguntza ematen duten guztiak opari bana jasoko dutela.

Mahaiez gain, bestelako bideak ere izango dira crowdfundingean parte hartzeko, besteak beste, itsulapikoa.eus webgunean edo 644 079 065 zenbakira whatsapp-a idatzita.

Tourra uztailean

Tourra uztailean 1ean abiatuko da Bilbotik eta hiru etapa egingo ditu Euskal Herrian.

Munduko postreak

Aurrera doa Auzoko egitasmoak antolatutako Munduko postreak sukaldaritza tailerra. Joan zen astean Damaris Ojedak Txokolatezko markesa prestatu ostean, aste honetan Cristina Cuencak Valladolideko Amargilloak kozinatu ditu. Geine Dos Santos brasildarra eta David Lindemann dira hurrengoak.



Begisare proiektua aztergai institutuan

'Proiektu komunitarioak' izeneko ikasgaiaren baitan, besteak beste, Begisare proiektua aztergai izan dute Soraluze BHI Institutuan

Gipuzkoako Aldundiak *Aniztasunetik eraikiz* programan parte hartzeko Soraluzeko BHI Institutuari egindako eskaera tarteko, ikastetxeko ikasleek bi erakunderen gaineko proiektuak ezagutu dituzte ikasturte honetan: Begisarera eta Aita Mari salbamenduko ontziarena. Batetik, Aita Mari ontzian boluntario lanetan aritzen den erizain bat izan zuten bisitan, Amaia Iguaran. Hark, kontzientziazio saioa



Ikasleak Txipi-rekin.

egiteaz gain, zelan lagun diezaiekegun azaldu zien ikasleei.

Oztopoak identifikatzen

Bestetik, Begisareko hainbat kidek elkartaren berri emateaz gain, ikasleek esperimendu batean parte hartzeko aukera izan zuten: ikusmenarekin lotutako hainbat gaitzek zelan eragiten duten ezagutzeko aukera izan zuten betaurreko berezi batzuekin. Horrez gainera, besteak beste, Soraluzen ikusmen urritasuna dutenek izan ditzaketen oztopoak aztertu zituzten, herri arriskuen mapa osatuz. Eta txosten hori osatzeko, ikusmen urritasuna duen Jose Luis Arizaga Txipirekin eta haren bikote Pili Valeroekin herrian ibili ziren ikasle gazteak, oztopo horiek identifikatuz.

Hortz klinika
Errabal 1
Tel.: 943 75 16 13

Javier Alonso
Mediku Estomatologoa
K.Z. 48.000.501

Katia Gustinho
Odontologoa
K.Z. 48.061.541

30 urte baino gehiagoko esperientzia odontologia, protesiak, ortodontzia, kolortze/whitening, ingurmentz, estetika...
Zerbitzu radiologiko onakorra (3D): endometri, orto eta tele.

Kontulan

Ahoikularitza fiskala · Kontabilitatea
Lan-aholkularitza · Zerbitzu juridikoa
Ticket bai · Outsourcing · Aseguruak

www.kontulan.com

Armendi Jatetxea

Sukalde tradizionala
Eguneko menua
Asteburuetan menu berezia
Karta
Burduntzan erretako bidotsa
Etzeke fritoa
Soufflé

Tel.: 943 75 10 02

FOGASLER
ITURGINTZA

943 75 16 46 (Soraluze) · 943 71 82 49 (Oñati)
fogasleriturgintza@gmail.com

ARRANO
taberna

Etan! eta gozatu etxeo pintxoak

Etxebarrieta 6

OSTIA MARIATZA

Enkarguak hartzen ditugu
Gertuko garaidia
Etzeke tripa, txistora, salbitza eta mingaina

Etxebarrieta 5
Telefonoa: 943 75 23 75

bertako
igogailuek | ascensores

Benetako orotariko zerbitzua
100€-tik/hileko

Igogailuen mantentze-lanen eskaintza zorrotzera
+2.000 bezeroak gogon dute konfiantza
943 903 450 bertako.eus



Amparo Fernandez saltokian, bezero bati arreta ematen, zapatuan.

Autoservicio Amparo aurrera

Amparo Fernandezek hartu du Autoservicio Amparo saltokiaren gidaritzia eta erretiratu arte eusteko asmoa du

Autoservicio Amparo saltokiak ugazaba bakarrarekin egingo du aurrera. Iaz, ahizpa nagusi Txaro Fernandezek erretiroa tarteko, saltokia saldu edo alokairuan emateko eskaintza egin zuten Fernandez ahizpek, dendarekin

segitzeko asmoa zuen norbait azalduko litzatekeen esperantzarekin. Bi ahizpek ikusten zuten zailtasunik handiena zen pertsona bakarrarendako nekeza litzatekeela saltokian segitzea.

Baina ez zuten interesdunik lortu. Hori horrela, egoerari buelta eman, saltokia pertsona bakarrak lan egiteko moduan berrantolatu, eta, Amparo Fernandezek hartu du gidaritzia osoa.

"Bezero oso fidelak"

Amparo Fernandezek kontatu duenez, "dena antolatu ondoren, orain, oso ondo" moldatzen da. Dio salmentak jaitsi egin zirela herrian Eroski zabaldu aurretik eta Eroskiren irekierarekin zaildu egin dela egoera; baina gaineratu du Gabolatseko saltokiak "bezero oso fidelak" dituela, "denetik" saltzen segitzen duela eta aurrera egitea espero duela erretiratu arte. Salmentei eusteko gakoa, berriz, bere bezero baten esanetan, saltzailea "jatorra izatea, saltzen jakitea, aurpegi txarrik inoiz ez jartzea eta bezeroari arrazoia" ematea da. Fernandezek azpimarratu du, bere ustez, herriko dendekek zabalik segitzeko ahalegina egin beharko luketela, bestela herria ezerezean geratuko da. "Nire bezeroak oso harro daude Gabolatseko saltokiak aurrera egingo duelako", dio.

"Eskubide berdinen alde" protestan segituko dute, LAB sindikatuak deituta

Maiatzaren hasieratik, protestan dihardute Mesedeetako egoitzako hainbat langilek. LAB sindikatuaren eskutik, salatzen dute "lehen eta bigarren mailako langileak" daudela egoitzan eta horren ondorioz, hainbatek "pribilegioak" dituztela lan-txandak aukeratzeko orduan eta beste batzuk, berriz,

"sobratzen diren txandak egitera kondenatuta" daudela.

Hori salatzeke, elkarretaratzeak egiten ari dira eguen goizetan eta arratsaldetan hainbat langile, egoiliar eta haien senide, hoguei lagun pasa. Horretan segituko dutela diote, esplikatzen dutenez, "aurten behintzat, egoera ez baita aldatuko".



Elkarretaratzea plazan.

GOKI

erreformak



FATXADA BIRGAITZEAK

S.A.T.E.
FATXADA AIREZTATUAK
BIRGAITZE TRADIZIONALA
BALKOEN BIRGAITZEA



ESTALKI ETA TEILATUAK

ERABATEKO BIRGAITZEAK
TERRAZA ETA ESTALKI LAUAK
MANTENTZE LANAK
SEGURTASUN SOKA FINKOAK



BARNE ERREFORMAK

ETXEBIZITZAK
LOKAL KOMERTZIALAK
BULEGO ETA ENPRESAK
SUKALDE ETA BAINUGELAK



IRISGARRITASUNA

OZTOPO ARKITEKTONIKOAK KENTZEA
IGOGAILU INSTALAZIOAK
0 KOTA



BULEGO TEKNIKOA

ERAIKINEN IKUSKARITZA TEKNIKOA
EFIZIENTZIA ENERGETIKOKO ZIURTAGIRIAK
ERAIKUNTZA PROIEKTUAK

ELGOIBAR
943 74 42 23

SORALUZE
943 12 57 41




BERGARA
943 76 53 42

Herritarren margolanak

TESTUA ETA ARGAZKIAK: EGOITZ UNAMUNO

Egunotan, Krabelin Pintura Eskolako ikasleen 30 margolan baino gehiago daude ikusgai kiroldegiko erakusketa gelan. Adin ezberdinetako herritarren lanak dira, hainbat estilotakoak, margolan hiperrealistetatik eta abstrakzio maila nabarmena duten lanetaraino. Krabelin Pintura Eskolak funtzionatzen diharduen 17 urteotan herritar asko trebatu dira bertan eta gaur egun ere 50 ikasle baino gehiagok dihardute Paula Pinilla irakaslearen eskolak jasotzen. Erakusketa maiatzaren 14ra arte izango da ikusgai.

Argazkietan ageri dira: Leire Ormazabal, Agus Jauntsarats, Amaia Gonzalez, Elena Etxebarria, Jone Ormazabal, Intza Baglieto, Ilune Garcia eta Aidor Aizpuru. Oharra: Erakusketako margolan eta egile gehiagoren argazkiak ikusgai Plaentxia.eus-en.





GUTUNAK

Eskerrik asko zaintzaile guztiei

MODESTAREN FAMILIA

Letra hauen bidez, nagusien egoitzan ia hiru urtez gure ama, amama, birramona zaindu duzuen zaintzaile guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu.

Bere azken egunak berarekin igaro izanak eta lasai agurtzeak urrea balio du.

Zaindua eta maitatua izan dela sentitu dugu eta bihotzez egindakoa, bihotzez eskertzen da.

Lurraren defentsan Gasteizen elkartuko gara

MIKEL ALVAREZ FORCADA

AZPIEGITURA-LAN HANDIEN AURKARIA

Maiatzak 20an, larunbatean, lurraldeari erasotzen dioten makro-proiektuak errefusatzeko eta gelditu daitezkeen

exijitzeko mobilizatuko gara Gasteizen "Lurraren defentsan, Euskal Herria bizirik!" lelopean.

Kezkagarria da ikustea nola inbertitzaile handiak gure lurraldera datozen berriro ere, ingurune naturala hondatzen jarraitzeko eta orain arte kontserbatu diren baliabide natural urriak lapurtzen segitzeko. Proiektu horiek naturguneak eta laborantza-lurrak bereganatzen dituzte, gure lurraldea egituratzen duten eta bizitzari eusten dioten ekosistemak desagerraraziz.

Azken aldian, gainera, energia krisiaren eta klima aldaketaren aitzakiaz baliatuz, mendialdeak eta landa eremu zabalak makro-proiektu eolikoak eta fotovoltaiakoak josi nahi dituzte, biodibertsitatean atzerabueltarik gabeko galera

eta balio natural eta paisajistiko handiko guneetan kalte larriak eraginda, baita elikadura bermatzeko ezinbestekoak diren nekazaritza eta abeltzaintza lurrak nabarmen hondatuta ere.

Hori denagatik, herritar eta talde guztiak lurraren defentsan elkartzeko eta beharrezkoak diren ekintzak eta mobilizazioak antolatzea beharrezkoa da. Larunbateko manifestazioa Euskal Herriko toki askotan lurraldea defendatzeko mugitzen ari garen hainbat talde eta pertsonen arteko elkarlanaren emaitza izango da.

Euskal Herriko mendiak, naturguneak, landa eta kostako inguruneak ez dira kapitalak konkistatzeko guneak! Larunbatean arratsaldeko 6etan Gasteizko San Anton Plazan elkartuko gara.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

KOMIKI TIRA



HAUSNARKETA

Hauteskundeak

Egunotan alderdiek herritarrei euren hautagaitza eta proposamenak aurkezten dihardute.



**AITOR
AMOR**

"Ez naiz ari kanpaina jarraitzen. Pasota samar nago. Urtetan hainbeste gauza entzun eta hain gutxi ikusi ditut betetzen... Botoa bai, emango dut. Pentsatzen dut derrigorrezkoa izan beharko lukeela. Oraindik, ez daukat erabakita zeini eman".



**AMAIA
OYA**

"Ahalegintzen naiz dauden proposamenak ezagutzen eta informatzen. Gustatzen zait debateak jarraitzea, batez ere, irratian. Komeni da ikuspuntu guztiak ezagutzea, ondoren aukeratzeko. Nik beti ematen dut botoa eta pentsatuta daukat zeini emango diodan".



**ENARA
AGIRRE**

"Kanpainak gustatzen zaizkit eta jarraitzen dihardut. Emaitzek eragina izango dute gure eguneroko bizitzan eta paso egitea txeki zuri bat ematea litzateke. Nik dagoeneko eman dut botoa posta bidez. Kontsulta gehiago egin beharko liriateke".



**FRANCIS
RAMIREZ**

"Kanpaina jarraitzen dut telebistan eta herriko proposamenez ere informatzen naiz. Etxean daukat lehen programa irakurtzeko, kanpoan izan naiz eta. Ni beti joaten naiz botoa ematera eta oraingoan ere joango naiz. Pentsatuta daukat zeini eman."

PUNTUA



IÑAKI AMUATEGI

Nora goaz?

Lege arrotz madarikatu... Horrela zioen Errobiren kantak 1978an eta 45 urte geroago ez du gaurkotasunik galdu: lege arrotzen menpe jarraitzen baitugu Euskal Herriko 3 eremu administratiboetan.


Iparraldean ikasle euskaldunek ezin dituzte Baxoko (selektibitateko) azterketak euskaraz egin Macronen Gobernuak debekatu egiten dielako.

Nafarroako Mañeru herriak zonalde mistora aho batez pasatzeko eskatu arren, Parlamentuan, UPNk eta PSNk atzera bota dute Udalak aho batez hartutako erabakia. Ondorioz, bertako eskola itxi eta Nafarren hizkuntzan (lingua navarrorum) ikasteko ezintasuna dute mañeuarrek.

EAEn euskara ofiziala den arren; udaltzainak, zaintzaileak, autobusetako begiraleak... kontratatzeke gutxieneko euskara maila eskatzea legez kanpoko delat ebatzi berri dute zenbait epailek.

Euskarari lotutako 3 adibide baino ez. Zoritzarrez, badira gure bizitzetan zuzenean eragiten duten beste hainbat lege arrotz: erretiro adina, pentsioak, argindar eta erregaien prezioak, hezkuntza legeak, lurralde-antolaketa, gastu militarra...

Atzar hadi! Atzar hadi! Ene euskaldun haurride!



Hautagaien lehentasunak eta proposamenak

Datozen orriak baliatuz, Soraluzeko Udalera aurkeztu diren alderdiek dituzten lehentasunak eta proposamenak helarazi dituzte; kasu honetan, EAJ-PNVk, EH Bilduk eta PSE-EEK; PPK, berriz, ez die erantzun Pil-pileanetik bidalitako galderei eta ez du jakinarazi nongoak diren Soraluzerako aurkeztu dituzten hautagaiak

Testua: **Ubane Madera Zangitu.** Argazkiak: **Fernan Oregi.**

Sartu gara hauteskunde kanpainaren azken txanpan. Alderdi politikoek maiatzaren 26ra arteko epea dute azken mezuak helarazi eta botoak eskatzeko. Gero etorriko da hausnarketa-eguna eta, maiatzaren 28an, botoa ematekoa.

Soraluzeri dagokionez, lau alderdik aurkeztu dituzte udalbatza osatzeko hautagaitzak: PPK, EH Bilduk, EAJ-PNVk eta PSE-EEK. Baina horien artetik, hiruk bakarrik, gaur egun Udalean ordezkaritza duten alderdiek, helarazi dizkiete proposamenak herritarrei, izan kalean, izan sare sozialetan edo herriko komunikabidean zein etxez etxe, EH Bilduk, EAJ-PNVk eta PSE-EEK. Izan ere, PPK Soraluzerako hautagaitza aurkeztu duen arren, ez du bestelako xehetasunik eman eta ez du datozen orriotan landutako erreportajearen parte hartzerik nahi izan. Besteak beste, ez du argitu, ezta ere, Soraluzerako aurkeztutako hautagaiak nongoak diren.

Boto eskubidea

Osterantzean, Soraluzen, 2.765 herritarrek izango dute botoa emateko eskubidea. Kopuru horren baitan daude kontabilizatuta 18 urtetik gorako herritarrak eta legearen babesarekin, botoa emateko eskubidea dutenak. Besteak beste, udalerrian bizi den atzerritar askok ez dute botorik emango, ez baitute horretarako eskubiderik. Botorako eskubidea duten atzerritarrak Espainiak eta herritar horien jatorrizko herrialdeek hitzarmena sinatuta dutenak dira.



Iker Aldeazabal, Patricia Borinaga eta Unai Larreategi udaletxe aurrean.

Soraluzeren kasuan, bederatzi atzerritarrek bakarrik dute botorako eskubidea.

11 udal ordezkari

Boto-emaileek Soraluzeko Udaleko udalbatza osatuko duten 11 ordezkari aukeratuko dituzte. Azken udal hauteskundeak 2019an izan ziren eta haietan EH Bilduk irabazi zituen bozak, 918 boto eskuratuta (%44,43). Bigarren izan zen EAJ-PNV, 704 botorekin (%34,08). PSE-EEK, berriz, 348 boto eskuratu zituen (%16,84) eta azkenik, PPK 63 boto ekuratu zituen (%3,05).

Emaitzak emaitza, EAJ-PNV eta PSE-EE elkartu egin ziren, bien arteko 1.052 botoak baliatuta, EH Bilduren boto kopurua gainditu egin zuten 134 botoren aldearekin, eta Udal Gobernua eskuratu zuten.

Boto bakoitzak asko balio du

Bistakoa den moduan, beraz, boto aldetik ez dago alde handirik azken lau urteotan Udal Gobernua osatu duten alderdikideen eta oposizioan izan den alderdiaren artean. Bestalde, maiatzaren 28ko hitzorduari dagokionez, jaitsi egin da botoa emateko eskubidea duten herritarren kopurua, 2019an baino 180 boto-emaile gutxiago baitaude botoa ematera deituta. Hori horrela, pisu handia hartzen dute, bai alderdiek bereganatu ditzaketen boto berriek, baina baita ere, alderdiek galdu ditzaketen boto horiek ere. Gutxi batzuen dantza nahikoa izan daiteke Udal Gobernua batari zein besteari emateko.

Langabeziari aurre egin, degradatutakoa birgaitu eta energia komunitateak dira EAJ-PNVren lehentasun



Ramon Gallastegi, Veronica Galarraga, Iker Aldazabal, Nagore Zabala eta Abel Olaizola, EAJ-PNVren lehen bost hautagaiak.

Herriko langabezia altuari aurre egiteko neurriak hartu beharra eta egoera horri heltzeko asmoa nabarmendu ditu Soralezeko EAJ-PNVk Soralezeko dituen lehentasunen artean. Horrekin batera, udalerriko degradatutako guneak birgaitzearen alde lan egiteko konpromisoa adierazi du, Olaldeko plan bereziaren garapena tarteko, eta, eraginkortasun energetikoaren bidean, besteak beste, energia komunitateak bultzatzeko asmoa nabarmendu du.

Kalebarren eta Lantegi Eskola

"Gure politikaren ardatza herritarrek izanik eta herri mailan pairatzen dugun langabezia tasa altua medio, lan arloko aholkularitza zerbitzua eta formazio saioak antolatuko ditugu Kalebarren 8ko Enplegu eta Gizarteratze zentroan. Bestalde, Olaldeko pabiloian kokatzen den Lantegi Eskolan, gure herriko eta bailarako gazteei zuzendutako formazio eta praktika saioak antolatuko dira lan merkatuan txertatzeko aukerak izan ditzaten".

Olaldeko plan berezia

"Udalerrian degradatuta dauden eremu urbanistikoak birgaitzea bultzatuko dugu; Olaldeko plan berezia garatuko dugu. Ezozibideko azuoa bere osotasunean birgaitu eta Erregetxeko orubean erabilera anitzeko gune estali bat eraikiko dugu. Musika eskolako teilatua eta fatxada ere zaharberrituko ditugu".

Elkarlanean oinarritutako ibilbide orria

Udal Gobernuan egon garen zortzi urteotan, herriaren behar eta erronkei heldu eta bide eman diegu. Estrategia politiko sendoa definituta eta Udalean ordezkariak duten alderdi politiko guztien artean lan ildoak adostuta, elkarlana izan da ibilbide orria. Oinarri sendoak ezarri ditugu langabeziari aurre egiteko. Degradatutako eremu urbanistikoak birgaitzeko proiektuak martxan daude eta energia berriztagarrien aldeko apustua sendoa da. Muskiritzuko mendi lerroa balioan jarri dugu, Dolmenen Ibilbidea sustatuz, lur sail berriak erosiz eta bertakoak diren 6.700 zuhaitz landatuz. Azpimarratu nahi dugu, orain arte bezala, soralezetarren bizi kalitatea hobetzearen alde lan egiten jarraituko dugula herritar eta alderdi politikoekin elkarlanean, guztien artean Soraluze hobe baten alde lan egiteko.

Energia komunitateak

"Udal eraikinetan energia aurrezteko neurriak hartuko ditugu, baita hauetan eguzki panelak instalatu ere. Herritarrekin elkarlanean energia komunitateak sortuko ditugu. Eguzki panelen bitartez sortzen den energia bertan kontsumituz eta elektrizitatearen fakturaren kostua murriztuz".

"Herria birgaitzeko proiektuak geureganatzea da gure helburua"

IKER ALDAZABAL EAJ-PNV-REN ALKATEGAIA

EAJ-PNVren alkategai Iker Aldazabalek azpimarratu du euren kudeaketaren helburua dela Udalaz gaindiko erakundeekin elkarlanean, herriarentzako baliabide ekonomikoak eta herria birgaitzeko proiektuak bereganatzea.

Azken bi legealditan alkate, lau hauteskudetan, berriz, alkategai. Zergatik berriro?

Proiektuak adostu, finantzazioa lortu eta hauek martxan jartzeak legealdia gainditzen du denboran. Hau horrela, proiektu hauei amaiera emateko beharrezkoa da beste legealdi bat eta horregatik eta nire herriaren alde lan egiteko hartutako konpromisua oinarri, berriz ere, nire burua aurkezten dut alkategai izateko.

Azken lau urteotan Soraluzek zertan egin du aurrera eta zertan okertu?

Pairatzen dugun langabezia tasa oraindik ere oso altua da. Buru-belarri gabiltza lanean egoera honi aurre egiteko baina denbora behar da. Udalaz gaindiko erakundeetatik lortu diren 12.000.000 miloi euro baino gehiagori esker, degradatutako eremu urbanistikoak birgaitzeko lanak bideratu ditugu. Besteak beste; Pascual Churruca, Sapa, Ezozibidea, Gabolatseko zubi berria,



Plaentxi herri Ikastetxeko igogailu panoramikoak, Muskiritzuko mendilerroko basoberritzea...

Osatu duzun lan-taldeaz zer nabarmenduko zenuke?

Esperientzia, eskarmentua eta herriarekin konprometituta dauden lankideak dira. Herriak dituen erronkak eta beharrak zeintzuk diren ezagutzen dituzte eta azken lau urteetan egin duten bezala, hauei bide emateko gaitasuna eta prestutasuna azaldu dute.

"UDALAZ GAINDIKO ERAKUNDEEKIN JARDUNGO DUGU ELKARLANEAN"

Datu ekonomikoen arabera, Soraluze da Gipuzkoako herririk pobreena; zein da zure proposamena hori iraultzeko?

Herriaren eta udalaren egoera sozioekonomikoaz jakitun, argi daukagu guk bakarrik ezin diegula aurre egin herriak dituen erronka nagusiei. Hau horrela, azken legealdian egin dugun bezala, udalaz gaindiko erakundeekin elkarlanean, herriarentzako baliabide ekonomikoak eta herria birgaitzeko proiektuak geureganatzea da gure kudeaketaren helburua.

Udal jardunean nekagarri egiten zaizu...

Nekagarri egiten zait proiektu bat egitea pentsatzen denetik, errealitate bihurtu arte, udal tramitazioak denbora luzea behar izaten duela.

Udal jardunean asebate zaituen ekimen bat.

Muskiritzuko mendilerroan landatu ditugun 6.700 zuhaitz.

Gainerako hautagaien bertute bat.

Alkatetzarako hautagai bezala, herriaren alde lan egiteko hartu duten konpromisoa.

Gustuko leku bat Soraluzen.

Muskiritzuko mendilerroa.

Irakurri duzun azken liburua.

Juan Sebastian Elkano: Ingurua, Ibilbidea eta Epika. (Jose Antonio Azpiazu eta Javier Elorzarena).

Afizio berezia.

Ortugintza eta hegaztiekiko zaletasuna.

Egunero kontsultatzen duzun komunikabidea:

Plaentxia.eus.

Zerbitzuak hobetu, herria zaindu, Olaldeako plana eta SAPAko eremu osoa birgaitzea EH Bilduren lehentasun



ehbildu

Unai Larreategi; Ana Maiztegi; Maite Quintanilla; Iker Uzin; Jone Alberdi; Ainara Osoro; Martin Azkarate; Esther Cruz; Juan Fernandez; Iraultz Arluziaga; Ane Ugalde; Jondar Plata; Maria Elena Garaikoexea eta Jose Luis Arizaga.

dugu. Horrez gain, herriko zerbitzu, denda eta enpresak mantentzea eta berriak sortzea lehentasunezkoa da. Horretarako Udalak eragile sozioekonomikoekin eskuz esku lan egingo behar du.

Gure herriaren zaintza, guztiona baita

Herritarron bizikidetzeta eta herriaren zaintza garrantzitsuak dira guretzat. Horregatik, Soraluze biziak zaintza erdigunean izan behar du. Zentzu horretan, Udalaren jarduna eredugarria izan behar da, besteak beste, espazio publikoen zaintzan, ez delako nahikoa hauteskunde bezperan bakarrik lorategiak txukuntzea. Herritarrekin konplizitatea beharrezkoa da eta herria hobeto zaintzeko bideak ipiniko ditugu.

Olaldeako birgaitze urbanistikoa

Olaldeako plana garatzea estrategikoa da herriarentzat eta Udalak kontsekuenteki jokatu behar du. Atxuri, Errekalde, Gipuzkoa Etorbidea, Txurruken... erdigunearekin egoki konektatzeko aukera egingarria da. Udalak determinazio gehiagorekin jokatu behar du eta Jaurlaritza zein Diputaziotik lor daitezkeen errekurtoak ikuspegi estrategikoz kudeatu. SAPAko eremuan ere determinazioz jokatzeko dagokigu. Datozen hilabeteetan zati bat berrituko da, baina eremu handienak egoera negargarrian jarraituko du. Gunearen degradazioak kronifikatzeko arriskua dauka eta Udalak erreakzionatu beharra dauka".

Soraluze bizigarriagoa nahi eta behar dugu

Gure herriaren azken urteetako gainbeherarekin oso arduratuta gaude. Egoera honi buelta ematen ahalegintzea lehentasunezkoa da. EHBildutik herri biziagoa, bizigarriagoa nahi dugu. Horretarako helburu estrategiko argiak ditugu. Gobernantza kooperatiboa da gure eredu, gure egiteko modua: elkarrekin. Administrazioa eta herritarrak barnebiltzen dituen eredu da, erabakiguneak sortu eta konpartitzen dituen eredu. Eredu horretan sakonduz denon artean eraikiko dugu denok gustura biziko garen etorkizuneko Soraluze. Soraluzek aurrera egiteko haize freskoa behar du udaletxeak. Herritarron bizi kalitatea hobetzeko aldaketak behar direla argi daukat. Horregatik gatz EHBildutik Soraluze piztera.

"Erantzukizunez lan egingo duen gobernu berria behar da"

UNAI LARREATEGI EH BILDUREN ALKATEGAIA

Elkarlanerako borondatea eta seriotasunez eta ilusioz lan egingo duen gobernu taldea nabarmendu ditu Unai Larreategi EHBilduko alkategaiak.

Azken hiru hauteskundetan alkategai. Zergatik berriro?

Batetik, hauteskunderaz hauteskunde geroz eta herritar gehiagoren konfiantza jasotzen dihardugulako. Bestetik, aldaketarako gogo handia nabari dudalako herritarrengan. EAJ-PSEren 8 urteko gobernuak eman beharrekoa eman duenaren sentsazioa nahiko orokortua da. Seriotasunez eta ilusioz lan egingo duen gobernu talde berria behar du Soraluzek. Eta gogoz nago erronka horretarako.

Azken lau urteotan Soraluzek zertan egin du aurrera eta zertan okertu?

Agintaldi honetan hainbat gaitan lortu dugu EHBilduren inizatibaz alderdi guztien arteko elkarlana bideratzea. EHBildutik urteak daramatzagu herri honetan elkarrekin lan egin behar dugula esaten. EAJ-PSEk egin izan dituzten gobernu paktuek EHBildu baztertu eta kontrako bidea elikatu badute ere, EHBildutik tematu gara eta lortu dugu oposiziotik ere elkarlan espazioak eraikitzea. Udal gestioan ordea talka dezente izan ditugu. Estrategia, norabide argirik gabe jardun dute, "okurrentzien" araberako erabakiak hartzen jardun dutenaren sentsazioa daukagu.



Eta horrela ez dago Soraluze aurrera ateratzerik.

Osatu duzuen lan-taldeaz zer nabarmenduko zenuke?

Aurrerapauso potente bat eman dugu zerrenda osatzean. Ez daukat nik lan-taldearen bertuteak hauspotzen ibili beharrik. Herritarrek oso gustora hartu dute egin dugun planteamendua eta esker oneko hitzak eta animoak baino ez ditugu jaso zerrendakideok bueltan. Hortaz gain, soraluzetarron biritza hobetzeko lan-taldean dagoen gogo eta ilusioa nabarmenduko nuke. Oso harro nago osatu dugun lan-taldeaz :-).

Datu ekonomikoaren arabera, Soraluze da Gipuzkoako

"ESTRATEGIA, NORABIDE ARGIRIK GABE JARDUN DUTE UDAL GOBERNUTIK"

herririk pobreena; zein da zure proposamena hori iraultzeko?

Arazo estrukturala da. Ondorioz, ez dago formula magiko eta sinplerik. Urteetako gainbehera iraultzeko, helburuetan zentratutako estrategia sendo bat inplementatzea dagokigu Udalean. Konplexua izango da, baina erronkari ilusioz heltzeko pertsona eta proiektuak ditugu. Orain arte ez bezala, Udalak norabidea argi izan behar du.

Egintzat eman dezakegu gobernatzekotan bakarrik gobernatuko duzuela?

Beti izan dugu elkarlanerako borondatea, gobernuan egon garenean zein oposiziora bidali gaituztenean. Datozen urteetan herritarrek gobernatzeko ardura ematen badigute, bide horri eutsiko diogu. Hori delako Soraluze bizigarriago bat eraikitzeko modurik eraginkorrena.

Udal jardunean nekagarri egiten zaizu...

Estrategiarik gabeko udal jarduna.

Udal jardunean asebeste zaituen ekimen bat...

EH Bildutik etengabe ekarpenak egiteko izan dugun jarrera, gobernu taldetik gutxiegitan hartu arren kontuan.

Gainerako hautagaien bertute bat.

Ikerre lanerako borondatea eta Patriaciak esperientzia.

Gustuko leku bat Soraluzen.

Mendigaina.

Irakurri duzun azken liburua.

La SAPA de los Aperribay.

Afizio berezia.

Musika, kirola eta dantza.

Egunero kontsultatzen duzun komunikabidea.

Plaentxia.eus.

PSE-EEK uste du dagoena zaindu, irisgarritasuna hobetu eta inbertsioak egiten jarraitu behar dela



Patricia Borinaga eta Iñaki Rubio, PSE-EEren zerrendako lehen bi hautagaiak, zubian.

Alderdi sozialistak herrirako ikusten dituen lehentasunen artean, irisgarritasuna hobetu beharra eta herrian dagoena ondo zaindu eta mantenu beharra ikusten du; baita ere, udal zerbitzuetan eta instalazioetan inbertitzen jarraitzea eta bideratutako lanak bukatzea.

Irisgarritasuna hobetu

"Lehentasunetako bat da udalerrri osoan hiri-irisgarritasuna hobetuko duten jarduerari ekitea. Udalerrri irisgarri batek nabarmen

hobetzen du udalerrri horretako bizilagun guzti-guztien bizi-kalitatea".

Dagoena zaindu eta hobetu

"Horrekin batera, dagoeneko eraikita duguna birgaitu, leheneratu eta egoera onean mantentzeko helburua duten ekintzak bultzatzea ere bada lehentasun. Ildo horretan, oso garrantzitsua iruditzen zaigu, halaber, hiri-mantenua eta garbiketa hobetu, udalerrian ingurune atseginagoak sortzeko".

Inbertitzen jarraitu

Azkenik, beharrezkoa da udal-zerbitzu eta instalazioen hobekuntzan inbertitzen jarraitzea (gizarte-zerbitzuak, ludoteka, gaztelekua, kiroldegia, Itxaropena Erretiratuaren Etxea, futbol-zelaia, musika eskola, kultura-guneak, e.a.), haien kalitatea bermatzeko zein herritarren beharretara egokitzen direla ziurtatzeko. Ildo beretik,

bideratuta lagatako jarduerak bukatu behar dira: Pascual Churrucan alokairu sozialeko 29 etxebizitza eraiki; Tokiko Komunitate Energetikoa sortu; erabilera anitzeko espazio estalia sortzeko SAPAren pabiloia birgaitu; Ezozibidearen hiri-berroneratze integrala; Etxaburuetan ur-jolaserako gunea; Itxaropeneko terrazaren irisgarritasuna edo Gabolatseko zubia ordezkatu. Halaber, uste dut beharrezkoa dela Udalaren eta gazteen arteko komunikazioa hobetzea eta, horretarako, udal Gazteria Mahaia sortzea proposatzen dugu".

"Soraluzek hobera eta aurrera egin dezan lan egiten dut"

Sozialistok udal hauteskondeetara aurkezten dugun programan ez dugu agintzen bete ezin duguna. Udal-baliabideekin eta eskumenekin egin daitekeenean oinarritutako programa da. Horrela egiten dugu, ez dugulako frustrazio gehiago sortu nahi, oro har, bete gabeko promesekin nazka-nazka eginda dauden herritarrengan. Horrek esan nahi du Soraluzerako proiektu estrategikoei uko egiten diegula baliabide faltagatik? EZ. Horrek esan nahi du badakigula zein zaila den soilik norberaren menpe ez dauden proiektuak gauzatzea. Horregatik, datorren legegintzaldirako gure konpromisoa hobekien laburbiltzen duen hitza LANA da. Soraluzek hobera eta aurrera egin dezan lan egiten dut".

"Gure programa garatu ahal izateko aurkezten gara"

PATRICIA BORINAGA PSE-EEREN ALKATEGAIA

Esperientzia, lanerako gogoia eta sozialisten programa garatzeko nahia nabarmendu ditu Patricia Borinaga hautagai sozialistak.

Azken lau hauteskundeetan alkategai. Zergatik berriro?

Asko eman dezaket urteotan lortutako esperientziatik, lanerako, kudeaketarako eta sustapenerako eta akordioak lortzeko gaitasuna, batik bat. Soraluzen, EAJk eta EH Bilduk gobernatu dute; badakigu zelan. Gustatuko litzaidake sozialistek zelan egingo genukeen erakusteko aukera izatea.

Soraluzek zertan egin du aurrera eta zertan okertu?

Hobetu denari dagokionez (sozialistok Ongizate, Haur eta Gazteria, Berdintasun eta Hiri Mantentze arloak kudeatu ditugu), kirol eta kultura-ekipamendu eta aisiadirako espazio berriak sortu dira, haur-parke gehienak berriro eta bi ikastetxeetako eta udal instalazio askotako instalazioak hobetu. Udal eraikinen eta kale-argiteriaren energia-eraginkortasuna hobetu da. Kalebarrenen Enplegu eta Gizarteratze zentroa sortu da, eta, lantegi-eskola bat. Haur eta Nerabeen Udal Kontseiluak, Esperientziaren Gela eta Jabetze Eskola jarri dira abian eta Berdintasunerako III. Udal Plana onartu da. Okerrera egin dute, berriz, segurtasunak eta hiri-garbiketarak.

Osatu duzuen lan-taldeaz zer nabarmenduko zenuke?



Udalerrriaren ezagutza eta hura hobetzeko lan egiteko gogoia.

Soraluze da Gipuzkoako herririk pobreena; zein da zure proposamena hori iraultzeko?

Tokiko ekonomia aktibatzeke Udalak abian jar ditzakeen neurri eta laguntza puntualetatik haragoko jarduerak eskatzen ditu. Konponbidea beste erakunde eta eragile ekonomiko batzuk inplikatzeke gaitasunaren menpe dago. Arazoak ikuspegi osoa behar du, laneratzeko prestakuntzatik hasi eta industria, merkataritza eta ostalaritza suspertzeko programa espezifikoak inplementatzeraino. Konponbidea erraza dela esaten

"TOKIKO EKONOMIA AKTIBATZEKO, UDALAZ GAINDIKO JARDUERAK BEHAR DIRA"

duenak ez du egia esaten. Epe laburrerako konponbideak proposatzen dituenak ere, udal izaerakoak soilik, ez dio egia.

Egintzat eman dezakegu EAJrekin batera gobernatzeko duzuela?

Gure programa garatu ahal izateko aurkezten gara. Ez inoren makulu izateko. Ez EAJrena, ez EH Bildurena. Maiatzaren 28an herritarrek zein lekutan jarri gaituzten jakingo dugu eta horren arabera jokatu beharko dugu. Hartuko dugun erabakia Soraluzerentzat onena dela uste duguna izango da.

Udal jardunean nekagarri egiten zaizu...

Burokrazia administratiboa. Asko moteltzen du dena.

Udal jardunean asebeste zaituen ekimen bat...

Eusko Jaurilaritzak Pascual Txurrukan alokairu sozialeko 29 etxebizitza eraikitzea (2006tik ez) eta etxebizitza horien % 40 gazteentzat izatea lortzea.

Gainerako hautagaien bertute bat.

Iker Aldazabal (PNV), langilea; Unai Larreategi (EH Bildu) hizlari ona.

Gustuko leku bat Soraluzen.

Plaza Zaharra. Herritarren topaleku da eta gustuko dut jendearekin egotea eta berba egitea.

Irakurri duzun azken liburua

Morder la manzana nobela grafikoa.

Afizio berezia.

Garaiko telesail eta pelikulak eta PINK!

Egunero kontsultatzen duzun komunikabidea...

El Diario Vasco, El Correo, El País, Naiz, Deia, e.a. Herriko kontuetaarako, batez ere, Plaentxia.eus.



Denis Soriano domina jantzita duela.

Ekainean, Espainiakora

Martxoan, Gipuzkoako txapela irabazi zuen Denis Sorianok eta apirillean, bigarren geratu zen Euskadiko txapelketan

Denis Sorianok (Aramaio, 1986) badihardu Espainiako arrantza lehiaketarako entrenatzen. Errioxan izan zen joan den asteburuan, hantxe jokatu baita ekainaren 2-3an, Espainiako Izokinkideen Arrantza Txapelketa lance modalitatean. Soraluzetarrak bakarka zein Euskal Selektzioarekin batera hartuko du parte lehiaketan, Gipuzkoatik eta Bizkaitik joango diren beste zazpi lagunekin taldea osatuz.

Arrantzale soraluzetarrak esan duenez, txapelketa "zaila" izango da Espainiakoa: "Ur gutxi dago Errioxa aldean eta Espainiako txapelketa hiru errekatari izango da, Urbionen, Najerillan eta Neilan. Neila eta Urbion oso erreka txikiak dira. Halakoetan, ur askorekin, ba bueno, baina gutxirekin zaildu

egiten da asko amuarrainak harrapatzea".

Gipuzkoako txapeldun

Denis Soriano aurtengo denboraldian erdietsitako lorpenengatik sailkatu da Espainiako txapelketan parte hartzeko.

Batetik, martxoaren amaieran, Gipuzkoako txapela irabazi zuen; 26 amuarrain atera zituen Araxes ibaitik. Gipuzkoako txapelketa irabazten duen bigarren aldia izan da aurtengoa, eta bestelako urte batzuetan ere beti lehen hiruren artean sailkatu izan da, podiumean. Gipuzkoako txapela gutxi ez eta apirilaren 22an, Euskadiko txapelketan parte hartu zuen, Leitzarari ibaian. Han bigarren geratu zen, taldekide duen David Marcosen ondoren.

Eskola kirolaren azken jaiak

Zapatuan, maiatzaren 27an, Eskola Kirolaren azken jaiak egingo dute. Topaketa 10:00etatik 12:00etara izango da. Batetik, LH1ekoek eta LH2koek Altxorraren Bila jolasa egingo dute herrian zehar. LH 3, 4, 5 eta 6. mailak, berriz, Soraluzeko kiroldegiko frontoian elkartu eta Urpe enpresaren eskutik 20 herri kirol-jolas egingo dituzte. Jaiari amaiera borobila emateko, eskolari, gurasoei, begiraleei eta partaideei eskerrak eman ondoren, sari-zozketa egingo dute, iaz moduan.

120 ume

Aurten, 120 umek parte hartu du Eskola Kirolean. Bost begiralek jardun dute haiekin eta denetarik kirolak praktikatu dituzte, eskalda, eskubaloia, saskibaloia, futbola... Anje Eskarza arduradunak esan duenez, "zapatuetako asistentzia oso altua izan da eta derrigorrezkoak ez ziren topaketetan, berriz, normala".



Azken jaiak, iaz.



Eguraldia lagun, giro ederra sortu zen iazko Errugbi Egunean.

Laugarren errugbi eguna, ekainean

Soragaztea Rugby Klubaren eskutik, ekainaren 4an Errugbi Eguna ospatuko dute Soraluzen. Laugarren aldia izango du ospakizun horrek.

Ekainaren 4an, goiz osoko jarduna izango da Ezozikoko futbol zelaian, 10:30ean hasi eta 14:00ak artekoa. 10-12 urtez azpiko errugbi jokalariek parte hartuko dute topaketan. Inguruko artean, Eibar

Rugby Taldea, Mutriku Rugby Taldea, Ordizia Rugby, Zarautz Beltzak Rugby Taldea eta Amurrioko ordezkari izango da. Haiekin batera, urrunagotik etorriko diren taldeak ere izango dira. Kantabriako lau

taldek parte hartuko dute topaketan, Camargok, Sotilezak, Besayak eta Miengok, baita Asturiasko Real Oviedo Rugby taldeak ere.

"Berdin da Eibar zein Oviedo"

Zentzu horretan, Soragaztea Rugby Klubetik laguntzeko prestutasun hori nabarmendu nahi izan dute. "Oso garrantzitsua da beste erkidego batzuetako taldeak prest egotea herri txiki bati laguntzeko. Errugbian berdin da Eibar zein Oviedo; eskua altxa eta hor daude, laguntzeko prest. Horrek harrিতa nauka: nork pentsatuko luke Oviedora deitu eta berehala prest egongo zirenik gure proiektuari bultzada emateko", dio Enekoitz Igartuak.

Eskerrak denei

Halaber, Soragaztea Rugby Klubeko ordezkari Igartuak eskerrak helarazi nahi dizkie Errugbi Egunaren bueltan laguntasuna eskaini dizkieten komertzio, taberna eta herritar guztiei. Eta noski, guztiak gonbidatu nahi ditu ekaineko Errugbi Egunerako.

Jokin Muñoz txapeldun, urtebetez lasterketetan ibili barik egon ondoren

Domeka borobila izan zuen Jokin Muñoz korrikalariak maiatzaren 21ean. Urtebeteko etenaldiaren ondoren, Gasteizko maratoian parte hartu eta irabazi egin zuen lasterketa entzutetsua. Guztira, 391 korrikalari izan ziren eta Muñozek 2.24:50eko denboran gainditu zituen Martin Fiz maratoiaren 42 kilometroak,



Jokin Muñoz helmugaratzen.

bigarrenari minutu bat eta zazpi segundoko alde ateraz.

Pozarren, "egunero" berarekin dauden familiari eta lagunei dedikatu zien garaipena soraluzetarrak. Haiek, berriz, ezustekoa eman eta ongi-etorri beroa egin zioten domekan bertan, herrira ailegatu zenean.

Garaipenaren ondoren, orain ondo errekuperatu eta denboraldia apur bat luzatzeko asmoa dauka korrikalariak, "gero udan disfrutatatu, berriz ere lanean hasteko".



Erromerixa eguna iaz, Ezozin.



Kaxarranka dantzaten Euskal Jaian.

Euskal dantzarako hitzorduak

Ekainean euskal dantzarako bi hitzordu izango dira herrian. Lehenik, Haurren Euskal Jaia eta, ondoren, Ezoziko Erromerixa Eguna.

Bi urteko geldialdiaren ostean, aurten, Haurren Euskal Jaia egingo da berriz. Hala, ekainaren 4an, Aretxabaleta, Arrasate, Antzuola, Oñati eta Sorluzeko dantzari txikiak batuko dira herrian, goizez eta arratsaldez, herriko

kaleetan eta plazan dantzan egiteko.

Aurtengoa, gainera, edizio berezia izango da, ekimenak mende erdia beteko baitu. Haurren Euskal Jaia Sorluzeko Ametsa Ikastolak antolatu zuen lehen aldiz 1967ko abuztuaren

24an eta, orduko hartan, Zarauzko, Bergarako, Osintxuko eta Elgoibarko dantza taldeak gonbidatu zituzten. Harrezkero, herritar askok parte hartu dute antolaketa lanetan. Azken urteotan, Urrats dantza taldeko kideak dira ekimena antolatzen dutenak.

Erromerixa Eguna Ezozin

Bestalde, ekainaren 10ean egingo da aurtengo Erromerixa Eguna, Ezozin, ohiko egitarauarekin. Bazkaritarako txartelak dagoeneko salgai daude Iratxo goxodendan.

Azkargortaren margolanak

Ricardo Azkargortaren *Leku batean 43.11,-2.40* erakusketa ikusgai dago Orea Art galerian, maiatzaren 31ra arte. Bertan, artista bergararraren dozenatik gora margolan ikus daitezke astegunetan, 19:00etatik 20:00etara bitartean. Ekainaren 2an, *Moltalvani omenaldia* izeneko erakusketa inauguratuko da.



2023
2024**MUSIKA ESKOLA**
MATRIKULAZIOA**MAIATZAK 17**
EKAINAK 9

KLARINETEA SAXOFOIA PIANOA GITARRA SOINUA TRIKITIXA PANDEROA TXISTUA
 ZEHARKAKO TXIRULA BIOLINA TRONPETA TRONBOIA MUSIKA KANTUZ PERKUSIOA
 BAXU ELEKTRIKOA MUSIKA ETA MUGIMENDUA TALDE INSTRUMENTALA GITARRA
 ELEKTRIKOA FOLK TALDEA GANBARA MUSIKA MUSIKA HIZKUNTZA BIOLONTXELOA
 GAZTE ETA HELDUENTZAKO MUSIKA HIZKUNTZA BANDA BOMBARDINOA

Aurrematrikula ONLINE egiteko: labur.eus/aurrematrikula1

**KONTAKTUA:**

✉ soraluzemusika@gmail.com ☎ 943 75 15 44



SORAILUZEKO
MUSIKA ESKOLA

Bertsio Bazkaria**Ekainak 3, zapatua**

14:30ean

Lagun Maitea Elkarte

Nerea Ibarzabal Salegi**Julio Soto Ezkurdia**

Menua: Sarrerakoak, entsalada eta
sahieskia labean edo lasaina begetarianoa.
Postrea, kafea eta kopa.

25 euro (prekarizatu eta 16 urtetik
beherakoak 15 euro)

Izen ematea: Iratxo
gozotegian
edo online (QR)



ANTOLATZAILEA: BertSora
LAGUNTZAILEA: Sorailuzeko Udala

**Lagunarte ederrean, hizkuntzaren
jolasarekin gozatzeko.**





ON EGIN!

gida gastronomikoa

2023ko Debabarreneko jatetxe eta tabernen gida

Ondo jateko ere, ez daukagu urrutira joan beharrik. Erreparatu bestela hurrengo bi orrialdeoi. Gastronomía eskaintza paregabea daukagu Debabarrenean, tradizioetik eta modernotik, bietatik duena, eta batez ere, eta bereziki, moko finenak ere gustura uzten dituen. Bokatak, mokadutxoak, eguneko menua, karta... egin zure aukera, eta on egin!




AGUIÑASPI Taberna

Urkizu 22, EIBAR

943 128 086

Menu berezia enkarguz, gosariak, plater konbinatuak, razioak, bokatak, hanburgesak, pintxoak...



ALBERT Taberna

Miguel Aginaga 6ac, EIBAR

943 383 177

Eguneko menua, asteburuetako menua eta karta.



BAISI Taberna

Urkizu 11, EIBAR

943 530 816

Espezialitatea: patata-tortilla, entsaladilla, bokatak, hanburgesak... Ardoetan aukera zabala.



BARATZE Gourmet

Bidebarrieta 39, EIBAR

943 845 503

Jatetxe-taberna kontzeptu berria, pintxoak, razioak, karta eta ardo aukera zabala. Etxera eramaten dugu.



BIRJIÑAPE BERRIA

T. Etxebarria 16, EIBAR

943 821 341

Eguneroko menua, bokatak, ospakizunak. Zure aurrekontura egokitzen gara. Etxerako zerbitzua,



BOSSA Gastroteka

Ego Gain 7, EIBAR

943 206 753

Etxean bezala. Gosariak, pintxoak, bokatak, razioak, pizzak eta hanburesak.



BURU ZURI taberna

Lersundi kalea, 23, DEBA

943 191 034

Ogitartekoak, plater konbinatuak, gosariak, razioak, pintxo bereziak, Luntxak.



GABI jatetxea

Kalebarren plaza. ELGOIBAR

943 741 230

KM 0 jakiekin egindako sukaldaritza. Jaunartzeak, bataioak, luntxak, eguneko menua, karta, enpresa bazkariak....



IBAI-ONDO jatetxea

Giza Eskubideen parkea, ELGOIBAR

943 256 028

Bazkari tradizionalak, parrilla, enpresa menuak, karta eta eguneko menua.



KILI KILI Croissanteria

Ibarkurutze 12, EIBAR

943 202 401

Eguneko menua, menu bereziak, gosariak, pintxoak, bokatak, afariak, txokolata eta txurroak...




LABATAI taberna

J.M. Ostolaza kalea, 1, DEBA.

943 509 910

Gosariak:06:00etatik aurrera, pintxoak, ogitartekoak eta plater konbinatuak.



LANDA jatetxea

Garagartza kalea, 32, MENDARO.

943 756 028

Denboraldiko produktuekin egindako karta. Espezialitate parrilla: haragi, arrainak eta itsaskiak. Ez da afaririk zerbitzatu.



LUZAIDE jatetxea

Mendarozabal z/g. MENDARO

943 756 166

Eguneko menua 14€ astegunetan. Asteburu eta jaietako menua 17 €. Menu bereziak enkarguz.



SU BEROA Taberna

Bista Eder 11, EIBAR

943 477 779

Gosariak, eguneko menua, talde menua, pintxo bereziak, bokatak, karta, razioak...



TIKI TAKA Taberna

San Andres pasealekua 2, EIBAR

943 284 006

Eguneko menua, asteburuetako menua, karta, razioak, pintxoak...



TXALTXA Jatetxea

Isasi 7, EIBAR

943 201 126

Karta, kartatik kanpo eta menua astegunetan. Astelehenetan itxita.



TXARRIDUNA jatetxea

Ermuaranbide 1, ELGOIBAR.

943 740 490

Eguneko menua astelehenetik ostiralera, larunbatetan menu berezia, karta, kintoak, bataioak, familiako bazkariak...

Errotaz betetako herria

BISITA GIDATUAK ARMAGINTZARAKO ERROTEN HISTORIA EZAGUTZEKO

TESTUA: EGOITZ UNAMUNO.

ARGAZKIAK: SORAPEDIA.EUS.

Maiatzean, Ondarearen Europako jardunaldiekin batera Gipuzkoako Erroten Eguna ospatu da, erroten historia eta garrantzia azpimarratzeko helburuz. Hala, hainbat herritan erroten funtzionamendua bertatik bertara ezagutzeko saioak antolatu dituzte: Beasainen, Zegaman, Ezkion, Zaldibian, Araman, Ataunen, Legazpin, Mutiloan...

Aurten, Soraluzek ere bat egin du ekimenarekin eta Gure Deba Ibaia taldeak Soraluzeko Udalaren babesarekin bisita gidatuak antolatu ditu *Armagintzarako errota* izenburupean. Lehen bisita, zapatuan (maiatzaren 21ean) eskainiko dute euskaraz, eta bigarrena, domekan (22an), gazteleraz. Biak goizeko hamarretan abiatuko dira Arane kiroldegitik eta bi kilometro inguruko ibilbidea egingo dute Sagar Erreka inguruan, garai batean ibilbide horretan izan ziren errota eta olen berri emanez. Aurreikusi dutenez, bisitek hiru ordu inguruko iraupena izango dute eta eguerdiko ordu baterako bueltan izango dira. Izena barikura arte eman ahalko da, 608 117 549 telefonora deituta edo gdi.soraluze.00@gmail.com helbidera idatzita.

Asteburuko bisitetan, funtzio jakin baterako baliatzen ziren errota dituzte hizpide:

armagintzarako errota. Izan ere, historian zehar, Soraluzeko errota hainbat zereginetarako erabili dira, nagusiki: garia eta artoa ehotzeko, suzko armak egiteko, argindarra sortzeko...

Arma ekoizpena

XVI. mendearen hasieran, suzko armen ekoizpenak indar handia hartu zuen –Hego Amerikaren konkistaren, Europako gerren eta moriskoen oldarraldien garaia zen- eta horrek aldaketa handiak eragin zituen erroretan. Errota zaharrak berreraiki eta berriak eraiki zituzten eta aurretik garia ehotzeko baliatzen ziren errota asko burdinola



Errotabarri (1979). SORAPEDIA



Malmeroko presa (1759). F.J. LAMOT

bihurtu zituzten. Sorapedian jasotzen denez, garai hura “zoramena izan zen” eta hainbat buruhauste eragin zituen: “Erroten jabeek armaginei alokatu zizkieten errota eta nekazariak kanpora jo behar izan zuten euren laboreak ehotzera. Azkenean, baina, denak pozik, armagintzak diru asko ekarri zuen eta”.

Hiru mende beranduago, XIX. mendean, hasi zen burdinoletako arma ekoizpenaren gainbehera eta errotek jatorrizko funtzioa berreskuratu zuten berriz: laboreak ehotzea.

Asteburuan ola eta errota horietako batzuen inguruan jardungo dute: Igareta, Ibaizabal, Errotabarri, Barrena, Sagarraga... Eta oraindik zutik dirauten arrastoak ikusiko dituzte elkarrekin.

Errotaz betetako herria

Sorapediaren arabera, historian zehar, hogeitahiru errota izan dira Soraluzen eta horietako hamabi baino gehiago armagintzarako erabili ziren. Ur emari aberatsei eta orografia aldatuarekin esker Soraluze leku ezin aproposagoa zen uraren indarra baliatzeko. Gaur egun, errota haien arrasto batzuk eta oroimena gelditzen dira errota betetako herria izan zen hartatik, eta oroimen hori da bisita-gidatuon bitartez biziberrituko dutena. Informazio gehiago: Sorapedia.eus.



Ola baserria (1979). SORAPEDIA



Agarrebolu baserria (2002). KONTRARGI



Arkaitz baserria (1979). SORAPEDIA



Aseginolaza barri (1979). SORAPEDIA



Armendiko errota (1979). SORAPEDIA



Errotazar baserria (1979). SORAPEDIA



Mutxaneko etxe zaharra. JOXEAN ARLUZIAGA



Olabarrena. SORAPEDIA



Zuzendariaren etxea lgaraten. SORAPEDIA

ZERBITZUAK

ZORION AGURRAK



Pedro Lete
Apirilaren 16an, 70 urte! Zorionak etxekoan eta lagunen partetik, Pedri!!!



Bidane Lazpita Ormaetxea
Maiatzaren 14an, 4 urte. Zorionak etxeko guztien partez!



Beñat Larrañaga Gallastegi
Maiatzaren 23an, 4 urte. Zorionak mutil haundi! Patxo haundi bat etxekoan partez.



Inar Arroyo Madera
Maiatzaren 24an, 12 urte. Zorionak eta ederki pasatu eguna!!!

JAIOBERRIAK



Luken Murguzur Gabilondo
Maiatzaren 4an jaio zen.

ESKELAK

ESKELA	
 Modesta Gallastegi Gaztelu 2023ko maiatzaren 2an hil zen, 97 urte zituela.	
Begiak itxi eta irribarre batekin gogoratzen dugu zurekin bizitako une bakoitza.	
Etxekoak.	

HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

Hildakoak



Modesta Gallastegi Gaztelu

Jaiotakoak

Budda Aali Ahmed

Niko Elizburu Ruiz

Luken Murguzur Gabilondo

 ROSA M^a PINTADO Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749 660 969 679 rosapf@telefonica.net	<p>Gure komunitatean arropa erabat bustita zintzilikatzen duen bizilagun bat dago, eta gainerakoan arropak bustitzen ditu. Jakin nahi nuke nola konpondu dezakegun hori.</p> <p>Zuk aurkezten diguzun arazo hau uste baino ohikoagoa da, eta haserre ugari sortzen ditu bizilagunen artean. Ez dago inon jasota gai honen aurrean nola jokatu behar den, ezinezkoa delako ordenantzetan kasuistika guztiak bazea. Legeak printzipio batzuk jasotzen ditu, zehazteko bizilagun batek besteekiko izan behar duen jokabidea nolakoa izan behar duen. Printzipio horiek zentzunean oinarritzen dira eta kalte txiki horien kontrako neurriak hartzea zaila da, erreklamazio formal bat egitea neurritz kanpokoa litzatekeelako. Irtenbidea, beraz, bizilagunen zentzunaren arabera izango da.</p> <p>ONDORIOA: Ez da beharrezkoa legedira jotzea arazo honi irtenbidea emateko. Bizilagunen borondate onarekin konpondu beharko litzateke.</p>
	 AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2



IKER ALDAZABAL BASAURI
Soraluzeko alkatezarako hautagaia

EIDER MENDOZA LARRAÑAGA
Gipuzkoako diputatu nagusirako hautagaia

Aurrera, batera!
Soraluze





Maite duzun Gipuzkoa

**Bizitzak ez
du preziorik.**

*Fakturek bizitza
baldintzatu
ez diezaguten.*

Bozkatu

ehbildu

**EGINGO
DUGU.**